Baldintza-Agiri honen xedea da hornidura-kontratu honetan itunak ezartzea, baita alderdien eskubideen eta betebeharren gaineko baldintzak ezartzea ikuspegi juridikotik, administratibotik, ekonomikotik eta teknikotik. Eta baldintza horien arabera egin beharko dira Elorrioko Udalaren argiteri publikoaren eta bere jabetzako eraikinetako argiteri elektrikoaren hornidura, 1. ERANSKINEAN HORNIDURA-PUNTUEN EGUNGO ZERRENDAn agertzen direnak, baita kontratuaren indarraldian sortuko diren hornidura puntu barrietarako eta ebentualetarako.

1. ERANSKINEAN – HORNIDURA-PUNTUEN EGUNGO ZERRENDAn honako identifikazio-datu hauek zehazten dira:

- HPKU: Hornidura-Puntuko Kode Unibertsala.
- Tarifa-taldea.
- Kontratatutako potentzia aldika desglosatua.

2. ARAUDI APLIKAGARRIA

Sektore elektrikoa arautzen duen legeriarekin lotuta araudi aplikagarria honako hau da :

- Abenduaren 26ko 24/2013 Legea, sektore elektrikokoa (aurrerantzean 24/2013 Legea) eta ondorengo aldaketak.

- Urriaren 26ko 1164/2001 Errege Dekretua, energia elektrikoaren garraio- eta banaketa-sareetara sarbide tarifak ezartzekoa (aurrerantzean “1164/2001 Errege Dekretua”).

- Abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretua, energia elektrikoko instalazioen garraioko, banaketako, merkaturatzeko eta hornidurako jarduerak eta baimentze-prozedurak arautzen dituena (aurrerantzean “1955/2000 Errege Dekretua”).

- Uztailaren 31ko 738/2015 Errege Dekretua, energia elektrikoa ekoizteko jarduera eta penintsulaz kanpoko lurraldeetako sistema elektrikoen aduana-izapidearen prozedura arautzen dituena. Argitaratua: BOE: 2015eko abuztuaren 1eko 183 aldizkaria, 66752 orritik 66903 orrira bitartean (152 orri).

Halaber, baita aplikagarria izango da sektore elektrikoarekin lotuta ordenamendu juridiko espezifiko guztia aurreko araudia zabaldu eta aldatzen duena.

3. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratua **2 URTE**rako izango da, **derrigorrezkoa**, formalizatzen den egunetik hasita. Prestazioa emoten hasteko data eraginkorra kontratua formalizatzen denetik astebetekoa izango da gehienez, eta baldintzatuta egongo da sektore elektrikoaren araudiak aurreikusten dituen epeen barruan enpresa banatzailearen sarbide-kontratura.

2 urteko kontratua, urtez urte luzatu ahal izango da, gehienez 4 urtera arte, hau da, urteko 2 luzapen. Alderdi bietako edozeinek lehenengo edo bigarren luzapena hasi aurretik kontratua bertan behera utzi gura izango balu, beste alderdiari jakinaraziko dio kontratuaren indarraldiaren azken eguna baino 3 hilabete lehenago, gutxienez, jakinarazpen-unean. Horrelakorik ezean, kontratua automatikoki luzatuko da, eta onartutzat joko dira zehaztutako baldintzak eta klausulak.

4. KONTRATAZIO-MODALITATEA

Kontratazio-modalitatea prezio finkoa izango da, non lizitatzaileak energia unitarioaren (€/kWh) terminorako prezio bera eskaintzeko konpromisoa hartzen duen kontratuaren bi urteetarako eta bi luzapen aldietarako. Prezioak berrikusteko prozedura aplikatuko da baldintza-agiri honetako 9. atalean agertzen den moduan. Energia unitarioaren prezio finkoak (€/kWh) eskainiko dira kontratazio-aldirako aldi eta tarifa-taldeko. Administrazio-Klausula Administrabioen Agiriaren I. ERANSKINean dagoen PROPOSAMEN EKONOMIKO-EREDUA bete beharko da.

.

Eskaintza abantailatsuena, guztiaren emaitzan zenbateko ekonomiko txikiena duena izango da. **Guztizko zenbatekoa izango da I. ERANSKINean (AKPAko PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA) sartutako tarifa-talde bakoitzeko zenbateko osoaren batura.** Aipatutako zenbateko guzti horrek ez du kontuan hartzen Estatuak fakturaziorako araututako kontzeptuen arabera, hau da: potentzia, ATR, karguak, Zerga Elektrikoa, BEZa eta Doikuntza-Mekanismoak edota indarrean dauden eratorriak, edo kontratu-aldian zehar ezar daitezkeenak. Paragrafo honetan aipatutako araututako kontzeptuei dagozkien zenbateko ekonomikoen ordainketa azken kontsumitzaileak (Elorrioko Udala) bereganatuko du zuzenean, eta dagozkien gobernu-dekretu arauemaileek xedatzen dituzten aldaketetara lotuta daude. Edozein kasutan, lizitatzaileak ezingo du gainkargu gehigarririk aplikatu aipatutako kontzeptuetako bakar batean ere ez, erregelamenduz ezarritako zenbateko araututik haratago.

Administrazio-Klausula Partikularren Agiriaren PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUAN –I. ERANSKINA- parametroetan egiten den edozein aldaketa/edizio, horiz agertzen diren gelaxkak ez direnak, prozeduratik kanpo zuzenean uzteko arrazoia izango da, ateratzen diren zenbatekoen isladan manipulazioa dagoela ulertuko delako.

Adierazitako kWh/urteko balioek 2022ko kWh-ko tarifa-taldeen eta aldien araberako gutxi gorabeherako kontsumo totalizatuari egiten diote erreferentzia, tarifa-talde bakoitzean dauden kontratu guztietarako. Plegu honetan eskainitako datuek informazioa baino ez dute emoten, lizitatzaileek kontratuaren urteko negozio-bolumenaren gutxi gorabeherako ideia izan dezaten. Eta datu horiek ez dute inolaz ere Elorrioko Udala lotzen, erakundearen elektrizitate-kontsumoa erakundearen jardueraren eta klima-faktore aldakorren mende dagoelako. Horregatik, esleipendunak segurtatu egin beharko du hornidura, nahiz eta kontsumoek, goitik edo behetik, adierazitako kopuruen ezberdinak izan.

4.1. POTENTZIA-TERMINOAREN FAKTURAZIOA

Potentzia-terminoa fakturatuko da 1164/2001 Errege Dekretuaren 9 artikuluan ezartzen duenaren arabera, edo geroago egindako aldaketetan jaso moduan, lizitatzailearen onurarako gainkargu gehigarririk barik.

4.2. ENERGIA ERREAKTIBOKO OSAGARRIAK

Energia erreaktiboko kontsumoaren osagarriaren kalkulua egingo da 1164/2001 Errege Dekretuaren 9 artikuluan ezartzen duenaren arabera, edo geroago egindako aldaketetan jaso moduan, lizitatzailearen onurarako gainkargu gehigarririk barik.

4.3. PREZIO-ALDAKETAK ARAUTUTAKO ETA ARAUTU GABEKO OSAGAIEGATIK

Elektrizitatearen prezioaren edo sarbide-tarifaren osagai arautuetan aldaketarik sortuz gero, bai gorantz, bai beherantz, aldaketok osorik eragingo dute esleipendunaren prezio erresultanteetan.

Aipatutako berrikuspena egiteko oinarri hartuko diren prezioak izango dira -Sarbide-Tarifaren prezioak, gaitasun-ordainketak, udal zerga eta etenik ez izateko demandaren kudeaketaren kostuak- eskaintzak aurkezteko muga eguna baino zazpi (7) egun aurretik indarreko aginduetakoak. Modu berean, kontuan hartuko diren tarifa-aldiak eskaintzak aurkezteko muga eguna baino zazpi (7) egun aurretik indarreko aginduetakoak izango dira.

5. ESLEIPENDURAREN BETEBEHARREKOAK

Puntu honetan deskribatzen diren atal guztietan lizitatzailearentzat betetzea derrigorrezkoa izango da, deskribatutako klausulak zeintzuk diren dakielako eta agiri honetako baldintza guztiak betetzen dituelako 2. ERANSKINEAN zehazten denaren arabera.

5.1. KONTU-KUDEATZAILEA IZENDATZEA

Esleipendunak kontu-pertsonal kudeatzaile pertsona bakarra izendatuko du. Pertsona hori izango da Udalaren edo kontratua gauzatuko duen kanpoko kontsultora energetikoaren aurrean arduraduna, hala nola datu operatiboen tratamenduarena, eta kontratuan zehar sor daitekeen edozein intzidentzia-mota bideratuko duena. Telefono-zenbaki bat emongo da (ezingo da call-center bat izan), eta helbide elektroniko bat pertsona honekin harremanetan jartzeko. Pertsona hau, beste batzuen artean banatzailearen aurrean udalerrian aldi baterako egiten diren altak/bajak tramitatu beharko ditu modu bizkor eta eraginkorrean (Udaleko mantentze-pertsonalarekin lankidetzan), hiru (3) egun baliodunekо gehienezko epean. Bestalde, baita arduratuko da baldintza-agiri honekin lotutako aipatutako eta lotutako gaietan aholkua emoten, baita egingo ditu fakturazioa, administrazioa eta kontratazioaren gaineko hobekuntzen gaineko aholkularitza (potentzia terminoaren doikuntza, tarifan aldaketa-iradokizunak, eta abar). Legean aldaketarik balego, esleipendunak aztertu egin beharko ditu aldaketa horiek eta proposamen bat egin beharko dio Udalari indarrean dagoen kontratuaren premien arabera alternatiba egokienarekin.

5.2. INFORMAZIOA EMOTEA

Hileroko faktura banakatua aurkezteaz gain, esleipendunak hiruhilero Excel orri batean, edo honekin bateragarria den batean, txosten zehatz bat entregatuko du, zeinetan, gutxienez, agertu egin beharko den kontsumitutako energia, benetan demandatutako potentzia eta maximetroen balioak, 6 aldietako bakoitzean, asteko balioekin gutxienez, kontratu bakoitzeko, bakoitzaren HPKU erreferentziarekin.

Modu berean, hilero esleipendunak e postaz bialduko du, formatu digitalean, eta editatzeko aukera erraz batekin (ahal dela Excel formatua), kontratuko banakatutako fakturen laburpen bat, fakturen datu azpimarragarrienekin, gutxienez agertuko diren eremuak honako hauek direlarik:

- HPKU: Hornidura-Puntuko Kode Unibertsala.
- Horniduraren helbidea, informazio gehigarria.
- Hornidura-mota: Argiteria Publikoa (AP), Eraikina (ER), Behin-behinekoa (B-B).
- Sarrerako tarifa.
- Aldi eta kontratu bakoitzerako kontratatutako potentzia.
- Hileko energia aktiboaren kontsumoa (kWh), aldika kontratu bakoitzean.
- Hileko energia erreaktiboaren kontsumoa (kVArh), aldika kontratu bakoitzean.
- Hileko fakturazioa (€), kontratu bakoitzeko banakatuta.

5.3. KONTRATATUTAKO POTENTZIEN OPTIMIZAZIOA.

Lizitaziora aurkezten diren enpresek demandatutako potentzien azterketa-plan bat aurkeztu beharko dute kontratua sinatzen denetik bi hilabeteko gehienezko epean. Plan horren barruan potentziak optimizatzeko (Elorrioko Udalak egindako eraginkortasun energetikoaren jarduketekin bat) urteko aldizkako berrikuspenak sartu beharko dira.

Halaber, proposatutako egokitzapena egiteko jarraituko den prozedura zehaztuko da eta tramitazioa enpresa esleipendunaren kontura izango da, Elorrioko Udalak bakarrik ordainduko dituelarik enpresa banatzailearekin kontratua aldatzeko araututako kostuak.

5.4. ENERGIA ERREAKTIBOAGATIKO KONPENTSAZIO-PLANA

Lizitaziora aurkezten diren enpresek energia erreaktiboaren azterketa-plan bat aurkeztu beharko dute, modu honetara aldian-aldian berrikuspen bat egiteko, kontzeptu honengatik zigorrak saihesteko.

Azterketan gutxitu behar den kopurua zehaztuko da, Udalari zigor ekonomiko posibleak saihesteko.

5.5. KONTRATUEN KUDEAKETA ETA POLIZAK

Enpresa elektriko banatzailearekin sarean sartzeko kontratua eta polizak kudeatzea. Kontratu honetan zehaztuko da enpresa komerzializatzaile esleipenduna banatzailearen sarrera-tarifak ordaintzeko arduradun bakarra dela.

5.6. TELEMEDIA EKIPOAK

Esleipendunak Udalaren ordezkaritza bereganatuko du banatzailearen aurrean eskaerarekin, instalazioarekin, mantentze lanekin, egiaztapenekin, ikuskaketekin eta neurketa-ekipamenduetan egon daitezkeen matxurak direla eta egin behar diren kudeaketa guztiak egiteko. Elorrioko Udalak neurketa-ekipamendua erosteko eskubidea gordeko du, kasu honetan, alokairuagatik ordaintzetik salbuetsita geratuko litzateke hornidura fakturazioan.

5.7. WEB ATARIA

Esleipendunak sarbide pertsonalizatua duen web atari bat edukiko du, zeinetan, horniduren zerrenda aurkituko den bere ezaugarri nagusienekin, gutxienez (HPKU, kontratuaren zenbakia, horniduraren helbidea, sarbide-tarifa, aldiko kontratatutako potentzia, titularra, energia aktiboaren kontsumoa kontratuko, energia erreaktiboaren kontsumoa kontratuko, eta abar) eta bere fakturazio ekonomikoak kontratuko.

6. JATORRI BERRIZTAGARRIKO BERMEAK

Esleipendunak kontsumoaren guztiaren % 100aren jatorriaren bermea egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du kontsumo-urtearen hurrengo urteko maiatzaren 1a aurretik. Esleipendunak, automatikoki egingo du berrerospena. Esleipendunak hornidura-puntuen zerrenda emon beharko du guztizko kontsumoarekin berrerosketarekin alderatuta Excelen. Bestalde, CNMCk egindako egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu PDF formatuan inprimatuta kontsumo-urtearen hurrengoko apirilaren 1a baino lehen berak sinatutako ziurtagiri batekin batera, zeinetan, sozietate bakoitzerako berrerositako kWhen guztia agertuko den, maila globalean eta independentean.

Aurrekoaren kaltetan gabe fakturetan mix energetikoa agertuko da, % 100a berriztagarria izanik.

7. JARDUERAREN JARRAIPENAREN TXOSTENAK

Esleipendunak prest egon beharko du hilero jardueraren jarraipenaren txostenak bialtzeko. Txosten horiek esan behar dute egindako edo egiteko dauden izapideak zeintzuk diren eta egoera zein den, eta baita fakturazioaren laburpenak eta kontratazio-egoera. Txosten guztiak Excel formatuan bialduko dira.

8. FAKTURAZIOA

Esleipendunak, fakturazio zikloa amaitu ondoren, **faktura bakarra bialduko du, zeinetan egindako horniduren guztia agertuko den**. Aipatutako fakturan argi agertuko dira hornitutako unitateen gaineko datuak, hala nola faktura zuzena izan dadin legeak aurreikusten dituen gainerako baldintzak.

Aipatutako faktura elektronikoa izango da, eta Elorrioko Udalaren faktura elektronikoaren sarrera-puntu orokorrean aurkeztu beharko da. Sartuko den artxiboaren formatu informatikoa faktura elektronikoari

dagokiona izango da, aipatutako sarrera-puntuan sartu ahal izateko baliozkoa (XML, SXIG). Faktura bat formalizatzeko legeak eskatzen dituen datuez gain, honako datu eta eremu hauek beharko ditu:

Eremuaren izena	Deskribapena
Kontzeptua	"ENERGIA ELEKTRIKOAREN HORNIDURA" jarri beharko du. Aldi berean, faktura osatzen duten hornidura guztien fakturazio globalaren aldia zein den zehaztu beharko du. Aipatutako aldia izango da hasierako fakturazio-egunaren eta fakturazio-zikloa hartzen duten hornidura guztien amaiera-eguna artekoa.
e-posta	Fakturaziorako izango den e-posta helbidea.
Banketxeko kontuaren fitxa	Esleipendunaren ordainketak egin ahal izateko: kontu-zenbakia, esleipendunaren titularra (IBANa gehi 20 digitu)

Horniduraren titularra, titularraren helbidea, posta-kodea, **HPKU osorik (20 digitu)**, faktura zenbakia, fakturaren igorpen-eguna, sarbide-tarifa, potentzia-terminoaren zenbatekoa, energia aktibo eta reaktibo-terminoaren zenbatekoa, kontagailuaren alokairuari dagokion zenbatekoa, erreaktibo-terminoaren zenbatekoa, fakturaren zenbateko guztia, BEZik barik, merkaturatzailearen izena, banatzailearen izena, kontratatutako potentzia aldika, fakturaren hasierako irakurketa aldika, fakturaren amaierako irakurketa aldika, ezarritako prezioa IEE barik aldi bakoitzerako, energia aktiboaren eta erreaktiboaren kontsumo guztia, aldi bakoitzerako kontsumoa eta aldi bakoitzerako demandatutako gehienezko potentzia eta lege-dekretuen edota –aginduen ordainketak betetzeari buruzko zenbatekoak (10/2022 LED), eta abar.

Igorritako faktura bakoitzari, esleipendunak, faktura elektronikoaren sarrera-puntuan Excel formatuan egindako artxibo informatiko bat erantsiko dio, eta honek zutabeka banakatuta HPKU bakoitzari buruz honako informazio hau jaso beharko du (kalkulu-orriaren ilarak):

- Faktura-zenbakia
- Igorpen-eguna
- HPKU erreferentzia
- Kontratu-kodea
- Horniduraren helbidea
- Tarifa-mota
- Fakturatutako aldiaren hasiera-eguna (uuuu/hh/ee) / eremu-tipoa “data”
- Fakturatutako aldiaren amaiera-eguna (uuuu/hh/ee) / eremu-tipoa “data”
- Kontratatutako puntako potentzia (kW)
- Kontratatutako potentzia laua (kW)
- Kontratatutako haranaren potentzia (kW)
- Fakturatutako puntako potentzia (kW)
- Fakturatutako puntako potentziaren kostu unitarioa KWko
- Fakturatutako potentzia laua (kW)
- Fakturatutako potentzia lauaren kostu unitarioa KWko
- Fakturatutako haranaren potentzia (kW)
- Fakturatutako haranaren potentziaren kostu unitarioa kWko
- Fakturatutako egunen konputua
- P1 Energia erreaktiboa (kVArh)
- P2 Energia erreaktiboa (kVArh)
- P3 Energia erreaktiboa (kVArh)
- P4 Energia erreaktiboa (kVArh)

- P5 Energia erreaktiboa (kVArh)
- P6 Energia erreaktiboa (kVArh)
- Puntan fakturatutako energia erreaktiborik (kVArh), ez badago, “0” agertuko da.
- Lauan fakturatutako energia erreaktiborik (kVArh), ez badago, “0” agertuko da.
- Haranean fakturatutako energia erreaktiborik (kVArh), ez badago, “0” agertuko da.
- Puntan fakturatutako energia erreaktiboaren kostu unitarioa (€), ez badago, “0” agertuko da.
- Lauan fakturatutako energia erreaktiboaren kostu unitarioa (€), ez badago, “0” agertuko da.
- Haranean fakturatutako energia erreaktiboaren kostu unitarioa (€), ez badago, “0” agertuko da.
- P1 Energia aktiboa (kWh)
- P1 energia aktiboaren kostu unitarioa (€)
- P1 Energia aktiboaren kostu unitarioa (€) – ordainketa-prezioa
- P2 Energia aktiboa (kWh)
- P2 energia aktiboaren kostu unitarioa (€)
- P2 Energia aktiboaren kostu unitarioa (€) – ordainketa-prezioa
- P3 Energia aktiboa (kWh)
- P3 energia aktiboaren kostu unitarioa (€)
- P3 Energia aktiboaren kostu unitarioa (€) – ordainketa-prezioa
- P4 Energia aktiboa (kWh)
- P4 energia aktiboaren kostu unitarioa (€)
- P4 Energia aktiboaren kostu unitarioa (€) – ordainketa-prezioa
- P5 Energia aktiboa (kWh)
- P5 energia aktiboaren kostu unitarioa (€)
- P5 Energia aktiboaren kostu unitarioa (€) – ordainketa-prezioa
- P6 Energia aktiboa (kWh)
- P6 energia aktiboaren kostu unitarioa (€)
- P6 Energia aktiboaren kostu unitarioa (€) – ordainketa-prezioa
- P1 Maximetroa (kW)
- P2 Maximetroa (kW)
- P3 Maximetroa (kW)
- P4 Maximetroa (kW)
- P5 Maximetroa (kW)
- P6 Maximetroa (kW)
- Ekipamenduaren alokairua (€)
- Zerga elektrikoaren zenbatekoa (€)
- Zerga elektrikorik balego, salbuespen-zenbatekoa, ez balego “0” agertu beharko da.
- Lege-dekretuen edota –aginduen ordainketak betetzeari buruzko zenbatekoa.
- HPKUaren zenbateko guztia (€)
- HPKUaren BEZari dagokion zenbatekoa (€)
- Zenbateko guztia, BEZa barne (€)

Zehaztutako datu eta eremu guztiak handiagotu edo txikiagotu egin daitezke Elorrioko Udalaren eskariz.

Esleipendunak, kontratua formalizatu eta gero, egin behar dituen fakturek 4. atalean, Kontratazio-Modalitatea, aipatzen diren kontzeptu arautuak sartu beharko dituzte, baina proposamen ekonomikoaren kalkulua egiteko ez dira kontuan hartuko, aipatutako kontzeptuen zenbatekoa lizitatzaile guztientzat bera izango delako.

Igorritako faktura guztien ordainketa, kudeatu ondoren, banku transferentzia bidez egingo da legeak aurreikusten duen gehienezko epearen barruan.

9. PREZIOAK BERRIKUSTEKO PROZEDURA

Elorrioko Udalak, energia-merkatuaren ziurgabetasun eta ezegonkortasun maila handiaz jabetuta, luzapen bakoitzean prezioak berrikustea proposatu du.

Energia Terminoaren prezioen berrikuspena OMIP Etorkizuneko Energia Merkatuko operadoreak energiarako argitaratutako balioen eta MLBNk argitaratutako doikuntza-zerbitzuen balioen arabera kalkulatuko da.

Prezioen igoera edo jaitsiera kalkulatzeko modua honela egingo da:

LEHEN LUZAPENA

Energiaren terminoaren prezioak eguneratuko dira, kontratatutako aldi desberdinetakoak, hura hasi aurretik. Prezio eguneratuen indarraldia urtebetekoa izango da, luzapen-akta sinatzen denetik kontatzen hasita.

$$\uparrow\downarrow \boldsymbol{Precio\ Término\ Energía_i} = (\uparrow\downarrow \boldsymbol{OMIP} + \uparrow\downarrow \boldsymbol{Servicio\ de\ Ajuste})$$

Non:

- i: Sarbide-tarifen aldi bakoitzeko energia-terminoaren prezioa.
- ↑↓OMIP: OMIP aldaketa zehaztutako aldi baterako, honela:

$$\boldsymbol{OMIP_2 - OMIP_1}$$

Non:

- **$OMIP_1$:** Hurrengo eragiketatik ateratzen den balioa $\frac{M(YR24)+M(YR25)}{2}$

  - M (YR24) = FTB- (YR24) adierazlearen kotizazioa duten egunetan argitaratutako balioen batez besteko aritmetikoa, eskaintzak aurkeztu aurreko 30 egunetan.
  - M (YR25) = FTB- (YR25) adierazlearen kotizazioa duten egunetan argitaratutako balioen batez besteko aritmetikoa, eskaintzak aurkeztu aurreko 30 egunetan.

- **$OMIP_2$ (dagokion hilean):** FTB- (YR_26) adierazlearen kotizazioa duten egunetan argitaratutako balioen batez besteko aritmetikoa, luzapena aurkeztu aurreko 30 egunetan.

- ↑↓ Doikuntza Zerbitzuak: Doikuntza Zerbitzuen aldaketa aldi batean, honela lortzen da.

  Luzapena aurkeztu aurreko 12 hilabeteetan argitaratutako orduen batez besteko aritmetikoa – Eskaintza aurkeztu aurreko 12 hilabeteetan argitaratutako ordu-kotizazioen batez besteko aritmetikoa.

BIGARREN LUZAPENA

Lehenengo luzapena bezala kalkulatuko da, honela:

- **$OMIP_1$:** lehen luzapenerako kalkulatutako OMIP2 balioa da.
- **$OMIP_2$: (dagokion hilean):** FTB- (YR_27) adierazlearen kotizazioa duten egunetan argitaratutako balioen batez besteko aritmetikoa, luzapena aurkeztu aurreko 30 egunetan.

10. BERMEA ETA HORNIDURAREN KALITATEA

Esleipenduna horniduraren arduraduna izango da honako hauen arabera: Sektore Elektrikoari buruzko 24/2013 Legea, abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretua, argindarra garraiatzeko, banatzeko, merkaturatzeko eta hornidura emateko jarduerak eta argindarraren instalazioak baimentzeko jarduerak arautzekoa, eta Neurketa-puntuen Erregelamendu Bateratua edo horiek ordezten edo osatzen dituen beste edozein legeria onartzen duen Errege Dekretua. Erantzukizun hori halakoa izango da, bai merkaturatze-jarduerara mugatuta badago, bai aipatutako araudian hala jasota badago. Ezin izango da enpresa banatzailearen eskumenei dagokien inolako erantzukizunik egotzi.

Esleipendunak banatzailearen aurrean Administrazioari afektatutako kontsumo-puntuei dagokien hornidura-kalitateagatik erreklamazioak tramitatuko ditu, eta banatzaileak indarrean dagoen araudiak xedatzen duena jarraituz deskonturik egiten badu, horiek fakturan aplikatuko ditu.

Seihilero, gutxienez, txosten bat egin beharko da (horniduraren kalitate-txostena), non aldi horretan izandako etete-denborak agertuko diren, hala nola, etete-kopurua, eta afektatuta egon diren hornidura-puntuak zehaztuko dira, hala nola etete-orduak zeintzuk izan diren eta arrazoiak. Txostena dagokion aldiko fakturarekin batera entregatuko da.

11. DERRIGORREZKO ZERBITZU GEHIGARRIAK

Kontratuaren esleipendunak kostu gehigarririk barik, honako betebehar hauek bere gain hartu beharko ditu:

1) Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 44.1.k) artikuluan erabiltzaileen eskubideen artean honako hau agertzen da: hornitzaile aldaketa egitea kostu barik eta legeak ezarritako epeetan eta arautu moduan.

Ondorioz, esleipendunaren betebeharra izango da kudeatzea eta baja lortzea egungo hornidura zerbitzuan kostu barik Udalarentzat. Edozein kasutan, 24/2013 Legeak xedatzen duanarekin bat, hornitzaile elektrikoaren aldaketak EZ du kosturik izango.

2) Banatzailearen aurrean tramitatuko du, Udalari gai honetan laguntza eskainiz, kontsumitzaileari dagozkion hornidura-kalitateagatik egin behar diren erreklamazioak egiterakoan, eta banatzaileak indarrean dagoen araudiak xedatzen duena jarraituz deskonturik egiten badu, deskontuak fakturan aplikatuko ditu.

3) Esleipenduna behartuta dago Udalari prezioan eragina duten (termino arautuak) arau-aldaketen barri emotera aldaketa horiek sartzen diren lehenengo fakturan, hau da prezio barriak ezartzen direnean, eta aldaketa horiek justifikatzen dituzten arauen gaineko informazioa emongo dio.

I. ERANSKINA: HORNIDURA-PUNTUEN EGUNGO ZERRENDA

		KONTRATATUTAKO POTENTZIA (kW)kW)					
HPKU:	TARIFA-TALDEA	P1	P2	P3	P4	P5	P6
ES0021000009741396HL	2.0TD	2,20	2,20				
ES0021000009744020VK	2.0TD	4,50	4,50				
ES0021000009743148AT	2.0TD	9,90	9,90				
ES0021000009743423ZE	2.0TD	9,20	9,20				
ES0353000000000987YX	2.0TD	7,50	7,50				
ES0353000000000981YG	2.0TD	3,00	3,00				
ES0353000000000997YC	2.0TD	9,90	9,90				
ES0353000000000985YP	2.0TD	6,90	6,90				
ES0021000010537476QT	2.0TD	9,90	9,90				
ES0021000009741330SE	2.0TD	9,90	9,90				
ES0021000009742901SY	2.0TD	9,90	9,90				
ES0021000009741465KL	2.0TD	5,40	5,40				
ES0021000009743479VD	2.0TD	6,60	6,60				
ES0021000009743292DY	2.0TD	6,00	6,00				
ES0021000009741513TK	2.0TD	6,60	6,60				
ES0021000009740991RM	2.0TD	9,50	9,50				
ES0021000009742571TK	2.0TD	9,50	9,50				
ES0021000009743768YE	2.0TD	1,10	1,10				
ES0021000012854022HD	2.0TD	2,20	2,20				
ES0021000009743401ZT	2.0TD	3,00	3,00				
ES0021000009743708GP	2.0TD	3,30	3,30				
ES0021000020008641JH	2.0TD	2,50	2,50				
ES0021000012333751YK	2.0TD	0,30	0,30				
ES0021000009743443SL	2.0TD	3,00	3,00				
ES0353000020755657RD	2.0TD	2,60	2,60				
ES0021000020036917RG	2.0TD	9,20	9,20				
ES0021000019725743HC	2.0TD	2,30	2,30				
ES0021000037340290ZV	2.0TD	9,20	9,20				
ES0021000013022292CB	2.0TD	6,93	6,93				
ES0021000012489533HR	2.0TD	2,00	2,00				
ES0021000016965991CS	2.0TD	6,93	6,93				
ES0021000011672481YR	3.0TD	49,22	49,22	49,22	49,22	49,22	63,00
ES0021000017339124ML	2.0TD	6,93	6,93				
ES0021000009743160AN	2.0TD	5,00	5,00				
ES0021000009743697AC	2.0TD	9,50	9,50				
ES0353000000000996YL	2.0TD	2,30	2,30				
ES0353000000000758LB	2.0TD	9,90	9,90				
ES0021000009743705GM	2.0TD	3,45	3,45				

ES0353000000000980YA	2.0TD	1,90	1,90				
ES0021000009743695AH	2.0TD	0,30	0,30				
ES0021000040023979VC	3.0TD	15,00	15,00	15,00	15,00	15,00	15,00
ES0353000000000984YF	2.0TD	10,39	10,39				
ES0021000013368315EE	3.0TD	5,23	5,23	5,23	5,23	5,23	15,00
ES0021000013023003MD	3.0TD	7,70	7,70	7,70	7,70	7,70	15,00
ES0353000000000988YB	3.0TD	15,10	15,10	15,10	15,10	15,10	15,10
ES0021000016202584HR	2.0TD	13,86	13,86				
ES0353000000000991YZ	3.0TD	40,00	40,00	40,00	40,00	40,00	40,00
ES0021000016471982RT	2.0TD	13,86	13,86				
ES0021000009741333QW	2.0TD	13,20	13,20				
ES0021000009741993KH	3.0TD	19,47	19,47	19,47	19,47	19,47	35,00
ES0021000009743606EK	2.0TD	13,20	13,20				
ES0353000000000990YJ	2.0TD	13,94	13,94				
ES0353000000000999YE	3.0TD	15,00	15,00	15,00	15,00	15,00	15,00
ES0021000013397621DA	3.0TD	15,00	15,00	15,00	15,00	15,00	15,00
ES0021000009742008EX	2.0TD	13,30	13,30				
ES0021000009743168AC	3.0TD	19,64	19,64	19,64	19,64	19,64	27,00
ES0021000009743174GA	3.0TD	48,58	48,58	48,58	48,58	48,58	60,00
ES0021000009741644YZ	3.0TD	21,00	27,00	27,00	27,00	27,00	27,00
ES0021000013022252HV	3.0TD	15,00	15,00	15,00	15,00	15,00	15,00
ES0021000013022272LZ	3.0TD	17,00	17,00	17,00	17,00	17,00	17,00
ES0021000013677665VE	3.0TD	5,16	5,16	5,16	5,16	5,16	15,00
ES0021000011672481YR	3.0TD	49,22	49,22	49,22	49,22	49,22	63,00
ES0021000020419568DG	3.0TD	9,00	9,00	9,00	9,00	9,00	15,00
ES0021000009741566AM	3.0TD	53,12	53,12	53,12	53,12	53,12	64,00
ES0021000018752341VR	3.0TD	17,32	17,32	17,32	17,32	17,32	17,32
ES0021000009743169AK	2.0TD	13,20	13,20				
ES0353000000000986YD	3.0TD	19,72	19,72	19,72	19,72	19,72	19,72
ES0021000009743423ZE	2.0TD	9,20	9,20				